

Jose Martin

Urrutia «Txotxe»

**AMETSEN
FAKTORIA**

IZENBURURA: AMETSEN FAKTORIA.

LEHEN EDIZIOA: 2018KO EKAINA.

LIBURU HONEK CREATIVE COMMONS LIZENTZIA DU:



EDIZIO HONENA: EZTENA JAIALDIA – ZIZT! KULTUR ELKARTEA.

TESTUARENA: JOSE MARTIN URRUTIA «TXOTXE».

HITZAURREARENA: EZTENAKO LANTALDEA

ARGAZKIARENA: TXELU ARANGOITIA

EDIZIOA ETA EKOIZPENA: EZTENA.

KOORDINAZIO TEKNIKOA: METROKOADROKA SORMEN LABORATEGIA.

EUSKARA AHOLKULARIA: AGUS PEREZ.

DISEINUA: ALLENDE ARNAIZ ETA IDOIA BERATARBIDE.

MAKETAZIOA: ALLENDE ARNAIZ ETA JOSEBA ROLDAN.

WWW.EZTENA.LIBURUAK.EUS

EZTENA@LIBURUAK.EUS

INPRIMAKETA: LEITZARAN GRAFIKAK. 20140 ANDOAIN.

ISBN: 978-84-09-02580-0

LEGE GORDAILUA: SS-571-2018

AURKIBIDEA

AMETSEN FAKTORIA Jose Martin Urrutia «Txotxe»..... 11

BIOGRAFIAK

Jose Martin Urrutia «Txotxe» 83

Jose Martin

Urrutia «Txotxe»

**AMETSEN
FAKTORIA**



eztena

HITZAURREA

Hamar urte bete ditu aurten Eztena arte eszenikoen jaialdiak. Hasieratik oso filosofia argiarekin egin genuen jauzi plazara: arte eszenikoetako eragileen arteko sareak sortu, sortzaileen-tzako elkargunea izan, ohiko zirkuituetan programatzeko zailtasunak dituzten lanei eta dramaturgiei erakusleiho bat eskaini, sortze prozesuan dauden lanak erakutsi, publiko aktiboaren ideia bultzatu...

Mikelazulo kultur elkarteko antolatzaileontzat abentura itzela izan da. Hamar urtetan jende asko pasa da Eztenatik eta, batez ere, bizipen ederrak utzi ditu. Eztena arte eszenikoen ospakizun bat bilakatu da urtez urte eta, segur aski garrantzitsuena dena, emanaldietatik kanpo ere etengabeak izan dira solasaldiak, enkontruak, gogoetak, besarkadak, elkar ezagutzeak eta trukeak.

Eztenak hamar urte bete dituen honetan beste proiektu bat jarri nahi izan dugu martxan, jaialdiak hasieratik izan duen helburuetan sakontzen lagunduko duelakoan: arte eszenikoetako hainbat lanen testuak plazaratu ditugu, edizio xume baina landuetan. Helburua, beste behin ere, jaialdiarena bera da: egun arte eszenikoetan dagoen aniztasun ideologiko eta estetikoak islatzen saiatzea, arrisku eszenikoak hartzen dituzten sortzaileen lanak aldarrikatzea eta haiek ikusgarri egiten laguntzea.

KARRIKA ANTZERKI TALDEA 2016an izan genuen bisitan Eztena jaialdian. Orduko hartan *Zapoi! Hil arte edan* antzezlanaren antzeztu zuten Niessen antzokian. Urtero antzezlan bakarra eskaini izan dugu Niessenaren egitarauaren barruan, egitarau osoko ekitaldi guztiekin bezala goraiatu nahi izan dugun teatro mota bat eraman izan dugu bertako oholtzara. Kasu horretan KARRIKA TALDEAREN ibilbidea eta Txotxe zuzendari eta idazlearen lana aldarrikatu nahi izan genituen: «amateur» hitzaren erabilera

komertzial eta interesatu bat hankaz gora jartzen duen teatro mota, familia bat osatzeraino lan egiten duen taldea: teatroa bizitzaren parte da, kultur emari, eta hori merkatuak inposatu nahi duen arte eszenikoen definizioa baino haratago doa. Horrez gain, EATAEren garaian ezagutu genuenetik, Txotxeren lanak eragin handia izan du Eztenako lantaldea osatzen dugun askorengan: bere espazioaren erabilera, gustu estetiko exklsitoa, koreografia koral bisualki ederrak osatzeko gaitasuna, teatraltasun utopikoaren suaren transmisioa, bere konpromiso erabatekoa teatroarekiko eta teatroak proposatzen duen edukiarekiko.

Bizitzak nahi baino arinago eraman du Txotxe gure albotik, esan beharreko guztiak, aitortu nahi izandakoak, helarazi nahi genizkion esker oneko hitzak behar bezala igorri gabe. Liburu hau Txotxeren lana eta teatroa sentitzeko modua plazara ekartzeko urrats bat izatea nahi genuke: marrazki eta testu ondare itzela utzi duelako bere ibilbidean, transmititua izateko zain dagoena oraindik. Baina obra oroz gain, sentimendu bat, su bat, bizitzaren aldeko oihu bat utzi digu Txotxek oinordetzan. Erraietan sentitzen duguna, konpartitzen duguna, gure gorputzen denborarekin amaitzen ez dena.

*Zapoi antzezlan*a ekarri zuen KARRIKA TALDEak Eztenara, baina hura beharrean *Ametsen faktoria* argitaratzea erabaki dugu, Txotxek antzerkia sentitzeko zuen moduaren isla ezin hobea delakoan. Lan honen irakurketarekin gozatuko duzuela espero dugu.

Eskerrik asko, Txotxe, bihotzez: GORA TEATROA, GORA UTOPIA... SUA!!!

EZTENAKO LANTALDEA

Txotxe, zuri ezin zitzazun tranparik egin. Ikusten zenigun barrukoa. Zuloa. Eta galdetzen zenigun: eta hori, zergatik? Eta hori, nondik? Zertarako zulo hori? Eta batez ere: zer bilakatu dezakezu zulo hori? Hitzzen aztia. Ikusezinen ikuslea. Oraindik, Ibaizabal erre kara begiratzen dugunean, zu espero zaitugu. Txalupa batean, ke artean, eskuak margoz eta bihotza zabal. Ez zatoz. Baina asteazkenak markatzen duen latitudean eta arratsaldeko bostak markatzen duten longitudean, beti ageri da errekan islada bat: artizarra. Eta ahots sakon bat. Eta utzi diguzun zuloa nabarmenagoa egiten da. Zuloa zer bihurtuko den ez dakigu. Baina ziur aterako zaigula lore bat edo zuhaitz bat edo ibai bat. Gauza ederrek lekua behar dutelako. Eta zuk beti lekua ematen zenien. Gora faktoria. Txurreria.

KARRIKA ANTZERKI TALDEA

Jose Martin

Urrutia «Txotxe»

**AMETSEN
FAKTORIA**

Ametsen faktoria antzezlanaren Durangoko San Agustin kultur
gunean estreinatu zen 2008ko irailaren 26an.

Irudiak: Naiara Lopez.

Musika: Jon Chavez.

Eszenografia / Jantziak: Elena Fernandez, Maite Lopez,
Karrika Antzerki Taldea.

Koreografia: Amaia Jaio.

Egilea Eta Zuzendaria: Jose Martin Urrutia «Txotxe».



PERTSONAIAK – AKTOREAK

KORKOTX:	Irati Iturrate
EMAGINA/ DORI/ IZASKUN:	Nazaret Froufe
LOURDES:	Uxuri Gallastegi
JOSE JULIAN:	Asier Gartzia
MARTA:	Garazi Magunagoitia
ENKARNA:	Maite Lopez
ELIAS/MAULEON:	Juan Ramon de la Cruz
FELI/ELENA/MORALES:	Ane Miren Acedo
RAMON/LUKAS:	Markel Ganboa
ELOISA/MIREN BIHOTZ (NERABEA): ..	Joana Ocaña
MIREN BIHOTZ (GAZTEA):	Alize Goiria
GABRIEL:	Julene Bernaola
DENA:	Alaitz Oleaga
MIGUEL ANGEL:	Mikel Uribelarrea
CIFUENTES:	Endika Zamalloa

I.
SARRERA
ANTZOKI AURREAN

ERREKAKO ESZENA

(Ikusleak aretoaren –Faktoria-txurreriaren– aurrean daudenean, ustekabean argiak itzali egiten dira eta NAGUSI-ENKARGATU bat areto barrutik irteten da. Kanpoan dagoen dorre behatoki batera igotzen da. Bi LANGILE-AKTOREren laguntzarekin dorre-behatokia mugitzen du. NAGUSIAK behatokian dagoen kanpaia erraldoia astintzen du eta LANGILE-AKTORE gehiago irteten da aretotik. Errekarantz mugitzen dira, bertatik batu behar dituztelako denok gauero botatzen ditugun ametsak, istorio galduak, pasadizoak edota ikasi nahi ez ditugun otoi-tzak. Zubi eta erreka ingurua portu txiki bat bilakatzen da. LANGILE-AKTOREEk egin duten lanari esker, dena prest dago errekatik behera datozen istorio ezberdinak jasotzeko. NAGUSIAK kanpaia jotzen du berriro, istorioak errekatik behera datozen seinale. Istorioen, pasadizoen, argitxoek atzetik, arinago irten den LANGILE-AKTORE talde batek ametsen karabana bat osatzen du batutako istorioekin errekatik behera. Errekan nabigatzeko erabiltzen diren oihuak nagusitzen dira errekan, edo beno, hobe esanda, ez ohiko karabana honetan.)

Gidariak

(Hanka-paluetan eta suaz bidea zabalduz)

A: Bide onean, beti behera eta pauso onean.

B: Laurden bat eta sakonera hartzen...

A: Bide onean, beti behera eta pauso onean.

B: Erdi bat eta sakonera hartzen...

A: Bide onean, beti behera eta pauso onean.

B: Hiru laurden eta sakonera hartzen.

Soken bitartez almadia gidatzen

A: Tenka sokak eta tira dezagun batera.

B: Ongi.

A: Hirura biok batera.

B: Zurekin batera.

A: Bat, bi eta hiru...

B: Eup!!

A: Tenka eta tira.